BURUZKO PROBLEMAK (bp 2)

1.- Lau egunetan aspirina erdi bana hartu dut. Zenbat pastila hartu dut guztira?

2.- 42 txorirekin, zenbat 6ko talde egin dezaket?

3.- Egunero 4 goilarakada botika hartu behar badut. Zenbat hartuko dut 12 egunetan?

4.- Atzo, kaniketan jolasten 15 irabazi eta gero 6 galdu nituen. Hasi nintzenean 7 banuen, zenbat dauzkat orain?

5.- Nicolasek bost euroko bost bilete besterik ez ditu 32 euroko diska pare bat erosteko. Zenbat falta zaio?

6.- Ane, Esther eta Xabier, Afrikari buruzko lana egiten ari dira. Anek 8 argazki ekarri du; Estherrek bikoitza eta Xabierrek Aneren kopuruaren erdia. Zenbat argazki daukate murala osatzeko?

7.- Egunero litro erdi esne edaten dut. Zenbat litro edaten dut astean?

8.-500 euroko bi billete trukatzen badut, 10 euroko, zenbat billete emango didate?

9.- Zein da 36aren erdiaren bikoitza?

10.- 100 eurokin, 4 euroko zenbat aldizkari eros dezaket?

liveworksheets.com